

2015: Lurzoruen nazioarteko urtea

Lurzorua zapaltzen dugun azaleraz harago doa. Landarediaren hazkunde eta kontserbaziorako oinarria da, gure elikagai, sendagai eta erregai iturri dena. Animalia aniztasunerako ere lurzorua funtsezkoa da. Bertan, landare-hondar eta elementu toxikoen deskonposizioa, atmosferaren osagaien xurgatzea, karbonoaren erregulazioa edota ziklo hidrológicoak bezalako ezinbesteko funtzioak betetzen dituzten milioika organismo daude.

Kalitatezko uraren hornikuntza, neurri handi batean, zoruen egoeraren menpe dago, baita paisaia eta landarediaren menpe ere. Egoera kaxkarrean dagoen lurzorua ezin du euri ura atxiki eta ziklo hidrológicoa ahultzen da. Lur bat kutsatuz gero, ura eta elikadurakatea ere kutsatzen dira.

Aldaketa klimatikoaren kontrako borrokan lurzoruaren papera garrantzia handikoa da. Izan ere, zoruen materia organikoa karbono dioxido erreserba handienetarikoa da eta negutegi efektuko gas honen biltegi eta hobi lana egin dezake.

Egun, gizakiak zuzenean nahiz zeharka eragindako hainbat mehatxupean dago lurzorua: degradazio fisiko eta kimikoa, gatzatzea, kutsadura, higadura hidrikoa eta, maila apalagoan bada ere, higadura eolikoa, zigi-



2015

Lurzoruen Nazioarteko Urtea

latzeak dakarren azalera galera...

Edafologiako aditu espainiarrek, hots, lurzoruaren zientzialariek, bat egiten dute Espainiako lurzoruen egoera larria eta negargarria dela esatean, eta bi zoru mota nabarmentzen dituzte degradazio handieneko adibide gisa: malda handitan kokatutako

lehorreko lursail abandonatuak eta nekazaritza intentsiboak erabiltzen dituenak.

Honengatik guztiagatik, Nazio Batuen Erakundeak Lurzoruen Nazioarteko Urtea izendatu du 2015. urtea, lurraren garrantziaren kontzientziazioa eta ulermena handitzeko asmoz baita lurzoruen baliabideen babes eta kudeaketa jasangarrirako ekintza eraginkor eta politikak sustatzeko asmoz.

Zer egin dezakegu herritarrok lurzoruen degradazioa saihesteko?

- Pestizida industrialen erabilera murrizten eta ura modu jasangarrin erabiltzen duten nekazaritza sistemak erabiltzea.
- Kontsumo praktiketan ingurumenarekiko eta bereziki zoruarekiko errespetuz jokatzera.

Gai honi buruzko informazio zabalagoa jaso nahi baduzu, eman izena **“Lurzorua eta Emankortasuna nekazaritza ekologikoan”** tailerrean.



Ibarreko bioaniztasunaren kontserbazioa

Argibide-taula dibulgatzaileak Sadar ibiain

Dagoeneko bi dira Sadar ibai ondoan ditugun argibide-etaulak Mutiloan barrena. Geure ibai parkean ikus daitezkeen eta ibaiari lotuta dauden animalia eta landareen irudiak dituzte. Oraindik ikusi ez badituzu, hurbildu zaitetz ezagutzera. Bata, Sadar Zeharbidearen atzeko aldean dago (7. atariaren parean) eta bestea, Unibertsitate Pasealekuaren mutur batean.



NATURGUNEA
Mutiloa plaza z/g
(Udaletxe berria)
Lehen solairua
Harrera ordutegia:
astearte eta ostegunak
11:30etik 13:30era
Telefonoa 948151382
medioambiente@aranguren.es

Mugikortasun jasangarria



Atera bizikleta kalera kanpaina. Nobedadeak

7 urtez "Atera Bizikleta Kalera" kanpaina txartelak zigilatzen eman ostean, heldu da garaia agur esan eta ekintza berriei bide emateko. Parte-hartzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkizuegu bizikletaren erabilpenaren konpromisoarengatik eta datozen hilabeteotan martxan jarriko ditugun ekintzak gustuko izatea espero dugu. Adi informazioari!

Elikagai ekologikoen produkzio eta kontsumoa

Ibarreko ikastetxe publikoetan baratze ekologikoak

Aurten San Pedro Ikastetxe Publikoko baratze ekologikoa handituko da maila desberdinen eskaerari erantzunez. Ttipi-Ttapan ere baratzeari ekingo diogu.

Bi baratze hauek Naturgunearen ekimenetik sortu dira, ingurumenarekiko elikadura eta kontsumo ohitura errespetutsu eta osasuntsuak sustatzeko eta ibarreko ikastetxeetan nekazaritza produkzio jasangarria ahalbidetzeko estrategiaren barruan.

Baratzea balio handiko hezkuntza-tresna da, experimentazioaren bidezko ikasketa ahalbidetzen duena.

Zero hondakin

Bio-birringailu mailegua

Honen bidez birringailuak doako maileguan eskatzeko epea ireki dela jakinarazi nahi diegu konpostagailua duten guztiei, bertara gehitzeko inauste hondarrak txikitu eta birrindu ahal izan dezaten. Honela, hondakinen auto-kudeaketaren zikloa ixten jarraitzea lortuko dugu.

Birringailua aste batez erabili ahal izanen da, astelehenetik astelehenera, aukeratutako datetan libre badago. Eskaera Naturgunea zerbitzura deituz edo korreo elektronikoz egin dezakezue.

Lehiaketak



2015eko Aranguren Ibarreko ingurumenari buruzko argazki lehiaketa

Aranguren Ibarreko aberastasun naturala ahalik eta hobekien islatzen duten argazkiak izanen dira sarituak. Argazkiak aurkezteko epea irailaren 21ean hasi eta urriaren 23an bukatuko da. Eskatu itzazu Udaletxean lehiaketaren oinarriak edo deskargatu www.aranguren.es web gunean.

Ingurumen-baliabideak



Antonio Sandoval ingurumen komunikatzaile eta ornitologoaren ¿Para qué sirven las aves? liburua gomendatzen dugu. Lan honek animalia hauekin gozatzera animatzen gaitu eta jokatzeko duten papera eta garrantzia azpimarratzen du. "Historian zehar hegaztiak oso baliogarriak izan dira. Hegazti intsektujalerik ez balego, adibidez, seguraski nekazaritza ez litzateke existituko, edo izatekotan, oso desberdina litzateke". Hegaztiak zertarako balio ote? Lelopean marrazkiak bidaltzera gonbidatzen ditu haurrek. Martxoaren 31^a bitartean jasotako marrazkien egileen artean 2 liburu zozketatuko ditugu eta datorren buletinean marrazki sorta bat argitaratuko da.

Datozen ekimenak

Izen- emateak 012ren bidez

Jardueretako plaza-kopurua mugatua da eta izen-emate ordenaren arabera emango dira.

Otsaila

Mutiloako jaki ekologikoen kontsumo taldearen ate irekiak

O sasuntsu jan nahi duzu? Ingurumenak kezkatzen zaitu? Inguruko nekazari eta abeltzainen jakiak nahi dituzu? Bat egin kontsumo taldearekin. Taldea tokian tokiko eta ekoizleari zuzenean erositako jaki ekologikoen alde egiten duten familiez osaturik dago.

Bere funtzionamendua, kontsumitzen dituzten produktuak eta bere kideak ezagutu nahi badituzu, pasa zaitez Aranetxeatik, Mutiloako Gazte Lekutik, otsailaren 19 eta 26an, 13:30etik 14:15era edo 19:00etatik 19:30era.

Haur- jantzien sortze-konponketa tailerra

Tailer honetan jantzi apurtuak eta gastatuak konpontzen ikasiko duzu edo jantzi berrietan eraldatzen, haien bizitza luzatuz.



Makinan josten jakitea ez da beharrezkoa.

Otsailaren 24an eta martxoaren 3 eta 10ean, 17:00etatik 19:00etara San Pedro I.P.an.

Irakaslea: Silvia Martinez.

Matrikula: Erroldatuak 25 €, ez erroldatuak 35 €.

Haurtzaindegi zerbitzua egonen da, familia bakoitzeko 5 € ordainduz. Izen emateak **otsailaren 18ra arte**.

Martxoa



Ba al dakizu... Tabonukoa (*Dacryodes excelsa*) Karibe, Afrika eta Hego Amerikako zuhaitz autoktonoa da. Bere espezieko beste zuhaitzekin sustraiak elkar lotzeko gaita da, Puerto Rico uhartera suntsitzen du-

ten urakanak pasatzean, sendoagoak eta hauskaitza-
goak izatea lortuz.



**2015EKO
ZUHAITZAREN
EGUNA, martxoak 1
igandea.**

**Familia-landatze
solidarioa**

Egitaraua:

10.30ean Udaletxean. Jakien bilketa.

Landaketa lekura bizikletaz edo oinez joango gara (Lezkairu Etorbidearen bukaeran, Iruñeko muga).

12.45ean hamaiketako ekologikoa eskolan.

Izen emateak otsailaren 23ra arte. Doakoa izango da izen ematea baina familia guztiei ekarpen bana eskatuko zaie. Ondorengo jakietan ale bat edo bi: arrain edo haragi kontserbak, zerealak eta gailetak. Aranguren Ibarreko Elikagai Bankura bidaliko dira egun horretan bertan.

NEKAZARITZA EKOLOGIKOARI BURUZKO TAILERRAK

Lurzorua eta ongarritzea nekazaritza ekologikoan

Lurzorua kontserbaziorako eta uzta oparoak lortzeko ezinbestekoa da lurzorua egitura eta ongarririk organiko eta medeatze mineralen bidez emankortzea.

Martxoaren 7an, 10:00etatik 13:00etara Ibaialde lokal-
letan. Praktikak eskolako baratzean ARREA Ekoneka-
zaritza Elkartearen eskutik. Erroldatuak 15 €, ez errold-
datuak 20 €. Izen emateak **otsailaren 25era arte**.

Baratze ekologikoaren diseinu eta plangintza

Edukiak: baratzea diseinatu eta planifikatzean kontuan hartu beharrezkoak: labore elkarke-
ta, txandaketak, ongarririk berdeak eta laborantza egutegia.

Martxoaren 13an, 16:30etik 19:30era San Pedro Ikaste-
txe Publikoan.

Emalea: ARREA Ekonekazaritza Elkartea. Erroldatuak 15 €, ez erroldatuak 20 €. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da, familia bakoitzeko 5 € ordaindu beharko delarik. Izen emateak **martxoaren 4ra arte**.

Ezagutu ibarreko fauna



Ezkoritzeko urmaelera gidatuko bisita, Zolina

Aukera paregabea garai honetan urmaelean sarri egoten diren hegaztiak ezagutzeko.

Haur eta helduentzako jarduera.

Martxoak 8, 10:30ean Zolinako merenderoan. Gida: Haritz Sarasa. Prismatikoak edo teleskopioa eta hegazti gidak eramatea aholkatzen da. Izena eman 012ra deituz martxoaren 4ra arte. Mugatutako plazak.

Hanburgesa begetal ekologikoak prestatzeko tailerra

Hanburgesa osasungarriak egiteko teknikak ikasiko dituzu, lekale, tofu eta ehundutako soja erabiliz.

Martxoaren 17an, 17:30etik 19:00etara Taxoarako Belaran Elkartean.

Emalea: Elisa Ayape. Matrikula: 12 € erroldatuak eta 18 € ez erroldatuak. Izen emateak **martxoaren 11ra arte**.

Haurtzaindegi zerbitzua egongo da, 5€ familia bakoitzeko.

Zakatina

Martxoak 22 igandea, 12.00etatik 14:00etara Mutiloako Mutiloa Plazan.

Zakatinak dirurik gabeko azokak dira. Berrera-biltzearen eta pertsonen arteko laguntzaren alde apustu egiten duen gizarte kontsumoarekiko alternatiba da. Haur eta helduentzako doako tailerrak egongo dira.

Egoera onean dagoen baina dagoeneko behar ez duzuna ekartzera hurbildu egun horretan. Beharbada, zuk ere gustuko zer edo zer aurkituko duzu: arropa, liburuak, elektrogailu txikiak, jostailuak...

Zakatina antolatzen duen borondatezko langileen taldean laguntza eman nahi baduzu, jarri zaitetz harremanetan Milarekin (665862118) edo Naturgunearekin telefonoz edo emailaz.



Morsbags tailerra

Morsbags ekimena Pol Morsmanek sortu zuen Londresen jendea oihalezko poltsa berrerabilgarriak erabiltzera animatzeko asmoz. Plastikozko poltsa kategorriak baztertze ahalik eta herritar gehienengana iristea da ekimen honen atzean dagoena. Hori dela eta, "pods" delakoak antolatzen dira: josteko, hitz egiteko, askaltzeko, ingurumenari laguntzeko... elkartzen diren taldeak.



Morsbag bat egiteko nahikoa da oihal batekin, berrerabilia ahal dela, eta gehitu nahi dizkiozun osagarriak. Guk josteko makinak eta merienda jarriko dugu. Martxoaren 26an izango da, 17:00etatik 19:00etara San Pedro I.P.an.

Emalea: Silvia Martinez. Matrikula: Erroldatuak 5 €, ez erroldatuak 10 €. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da, familia bakoitzeko 5 € ordainduta. Izen emateak **martxoaren 18ra arte**.



Apirila

2015eko Ibarreko ingurumenaren astea

Aurten ekintzez beteriko astea ospatuko dugu eta horien artean bigarren eskuko liburu eta jostailuen AZOKA SOLIDARIOA egingen dugu.

laz egin zen bezala, azokan salgai jarriko den materiala jasotzeko bi egun egonen dira. Irabaziak Stop Sanfilipp Fundaziora zuzenduko dira. Informazio gehiago: www.stopsanfilippo.org

Antolatzaileak bolondresak dira eta buletin honen bidez, azoka aurrera eramateko laguntza eskatu nahi dute. Interesdunak Marisarekin harremanetan jarri 678584432 telefonoan edo Naturgunearekin.

Martxoaren amaieran, ohiko informazio bideetatik, programatutako jardueren berri emango dugu.

